

**JARRAIBIDEA, 2012ko apirilaren 24koa, Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearena, Trenbide Koordinaziorako Batzorde Teknikoa sortzen duena.**

Azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren bidez Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri zen, eta Garraio eta Herri Lanetako sailburuordeari esleitu zitzaion Sailburuordetzaren eta horren eraginpeko organoen jarduera zuzendu eta ikuskatzeko eginkizuna, bai eta lurreko, aireko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioaren eta horien azpiegituren inguruko jardun-arloak zuzendu eta koordinatzekoa.

Erakunde-administrazioari eta sozietate publikoei dagokienean, sailari Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko ente publikoa eta Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa atxiki zitzaizkion.

Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko ente publikoak (maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez sortu baitzen), trenbide-garraioko azpiegituren eraikuntza eta administrazioa du helburu nagusi, hor sartzen direlarik azpiegitura horien ustiapena, mantentzea, trafikoaren segurtasun- eta antolaketa-sistemak kudeatzea, eta trenbide-azpiegiturei buruzko babes eta zainketa eginkizunak, trenbideen gaian eskudun den sailaren eskumenetan sartu gabe.

Azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 15. artikuluari jarraituz, eta Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren jarraibideekin bat, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoarekin harremanak izango ditu, eta indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituen koordinazio-, ikuskapen- eta kontrol-lanak egingo ditu harekiko.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, SA sozietate publikoa maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren bidez sortu zen, eta haren helburu nagusia da trenbidez garraioak egiteko zerbitzuak ematea, bidaiariei zein salgaiei dagokienez; gurpildun materiala mantentzea, eta trenbideko garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak burutzea.

Azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 14. artikuluari jarraituz, Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren jarraibideekin bat, Garraio Zuzendaritza Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren tutoretza administratiboaz eta gainbegiratzeaz arduratuko da.

Sailari atxikitako erakunde horiek agindu zaizkien egitekoak era koordinatuan burutzeko, batez ere mugikortasun murriztua dutenen irisgarritasunari buruzko araudia eta trenbideko garraio-zerbitzuetako nahiz azpiegituretako segurtasunari buruzko araudia betetzeari dagokionean, komenigarritzat jo da trenbide koordinaziorako batzorde tekniko bat sortzea, Garraio eta Herri Lan Sailburuordetzari atxikitako koordinazio teknikoko organo gisa, jardun-arlo horren barruan eskumenak dituzten saileko zuzendari eta erakundeen parte-hartzearekin.

Ondorioz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 6.f eta 13.1.c) eta g) artikuluek ematen didaten eskumenak erabiliz, eta martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa kontuan izanik, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Xedea.

1.- Trenbide Koordinaziorako Batzorde Teknikoa sortzea, trenbideko garraio-zerbitzuen eta azpiegituren eraikuntzaren eta administrazioaren arloan Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari agindutako egitekoen koordinazio teknikorako organo gisa.

2.- Organo hau Garraio eta Herri Lan Sailburuordetzari atxikita egongo da.

2. artikulua.- Egitekoak.

2.1.- Arau orokor gisa, Trenbide Koordinaziorako Batzorde Teknikoari dagokio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari trenbide-garraioaren eta -azpiegituren arloan esleitutako egitekoen koordinazio tekniko eta arrunta burutzea, batez ere zuzenbide pribatuko Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari ente publikoak eta Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoak gauzatzen dituztenena.

2.2.- Berariazko egitekoak:

a) Zirkulazioko segurtasunaren arloan:

-Trenbideko zirkulazioko eta ustiapeneko segurtasunari eragiten dioten jarduketarako oinarrizko lerroak sustatu eta koordinatzea.

- Istripu eta gorabeheren analisia egitea, eta dagokion administrazio-organoari informazioa ematea, zeinak, istripuen edo gorabeheren gainean Euskotrenek eta ETSk egindako ikerketaren ondorioen inguruan desadostasunik izanez gero, arbitraje-lanak egingo dituen.

- Trenbide-zirkulazioko segurtasunaren arloko erregelamendu, arau eta prozedura teknikoak besteekin partekatzea.

b) Irisgarritasunaren arloan, desgaitasuna duten pertsonentzat:

- Jarduketarako oinarrizko lerroak sustatu eta koordinatzea, material higikorretako nahiz trenbide-azpiegiturretako irisgarritasunari dagokionean.

- Irisgarritasunaren arloan aplikatu beharreko araudia betetzeko Euskotrenek eta ETSk aurreikusita dituzten jarduketak partekatzea, eta horiek zenbateraino bete diren begiratzea.

c) Kalitatearen arloan:

- Jarduketarako oinarrizko lerroak sustatu eta koordinatzea, bezeroarenganako arretaren, logotipo eta irudi-marken, eta trenbideko zerbitzua emateko instalazio eta ondasunak erabiltzeko arauen gainean.

- Trenbideen zaintzaren arloan aplikatu beharreko araudia betetzeko Euskotrenek eta ETSk aurreikusita dituzten jarduketak partekatzea, eta horiek zenbateraino bete diren begiratzea.

d) Indarrean dagoen legeriak esleitutako beste edozein egiteko.

2.3.- Egiteko horiek burutzeko, koordinaziorako gomendioak, jarraibideak eta txostenak onartu ahal izango ditu.

3. artikulua.- Osaera.

1.- Trenbide Koordinaziorako Batzorde Teknikoak osoko bilkuretan eta lantaldetan jardungo du.

2.- Osoko bilkura honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea, eta kanpoan bada, kargua laga badu edo gaixorik badago, Garraioetako zuzendariak edo Garraio Azpiegituraren zuzendariak, bietako batek ordeztuko du.

- Kideak:

- Garraioetako zuzendaria.

- Garraio Azpiegituraren zuzendaria,

- Zuzenbide pribatuko Red Ferroviaria Vasca/Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren ordezkari bat.

- Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SAren ordezkari bat.

- Idazkaria: Osoko bilkurak aukeratuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezten duten kideen artean.

Aztertu beharreko gaiak hala eskatzen duenean, beste pertsona batzuk ere osoko bilkuran parte hartu dezatela erabaki ahal izango da, hizpidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

3.- Jarraibide honen 2.2 artikuluan aipatzen diren arloetako gaiak aztertzeke, lantalde hauek sortuko dira:

- Trenbide-zirkulazioko segurtasunerako lantaldea. Taldekideak: Garraioetako zuzendaria, Garraio Azpiegituraren zuzendaria, Red Ferroviaria Vasca/Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren ordezkari bat eta Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren ordezkari bat.

- Irisgarritasuneko lantaldea. Taldekideak: Garraioetako zuzendaria, Garraio Azpiegituraren zuzendaria, Red Ferroviaria Vasca/Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren ordezkari bat eta Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren ordezkari bat.

- Kalitateko lantaldea. Taldekideak: Garraioetako zuzendaria, Garraio Azpiegituraren zuzendaria, Red Ferroviaria Vasca/Euskal Trenbide Sarea ente publikoaren ordezkari bat eta Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren ordezkari bat.

Lantalde horien buru Garraioetako zuzendaria izango da.

Aztertu beharreko gaiak hala eskatzen duenean, beste pertsona batzuk ere lantaldeetan parte hartu dezatela erabaki ahal izango da, hizpidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

4.- Osoko bilkurari bidezko iruditzen bazaio, beste lantalde batzuk ere eratu ahal izango dira. Osoko bilkurak erabakiko du zeintzuk osatuko duten.

4. artikulua.- Funtzionamendu-araubidea.

Trenbide Koordinaziorako Batzorde Teknikoaren funtzionamendu-araubidea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak kide anitzeko organoentzat ezarritakoa izango da.

Batzordeak, bere egitekoak burutzeko, egun Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailekoak eta batzordean sartutako erakundeetakoak diren teknikari eta administrarien laguntza izango du. Azertu beharreko gaien arabera batzordeak adituen eta perituen lankidetzara eskatu ahal izango du.

5. artikulua.- Indarrean jartzea.

Jarraibide honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 24a.

Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea,
ERNESTO JOSÉ GASCO GONZALO